

>>>

elkartu

Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten
Pertsonen Federazio Koordinatzailea
Federación Coordinadora de Personas
con Discapacidad Física de Gipuzkoa



DESGAITASUNA DUTEN EMAKU- MEAK ETA NESKAK

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN
ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOA

6. ARTIKULUAREN INGURUKO OHAR OROKORRA:
DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEAK ETA NESKAK

AURKIBIDEA

4 or.

01

ZER DA
KONBENTZIOA?

8 or.

02

ZER DIRA OHAR
OROKORRAK?

10 or.

03

DESGAITASUNA
DUTEN
EMAKUMEAK
ETA NESKAK
KONBENTZIOAN
ETA 3. OHAR
OROKORREAN

12 or.

04

AURREKARI
HISTORIKOAK

14 or.

05

OHAR OROKO-
RREAN ERABILI-
TAKO TERMINO
GARRANTZI-
TSUAK

16 or.

06

KONBENTZIOA-
REN 6. ARTIKU-
LUAREN ARAU-
-EDUKIA

20 or.

07

DISKRIMINAZIO
MOTAK

22 or.

08

ESTATUEK 6.
ARTIKULUA
GAUZATZEKO
DITUZTEN
BETEBEHARRAK

24 or.

09

ZEHARKOTASUNA
BESTE ESKUBIDE
BATZUEKIN

01

ZER DA KONBENTZIOA?



Desgaitasunaduten pertsonen eskubideei buruzko nazioarteko konbentzioa 2006ko abenduaren 13an onartu zuten New Yorkeko Nazio Batuen Egoitzan eta 2008ko maiatzaren 3an jarri zuten indarrean, Estatuak sinatu eta berretsi ostean. Horrenbestez, nahitaez betetzekoa da.

Konbentzioak berekin dakartzan berritasunen artean, ondoko hauek nabarmentzen dira:

01

Desgaitasuna giza eskubideekin lotuta dago, izan ere, desgaitasuna duten pertsonak ez dira karitate edo asistentziatzko politiken «objektu»; aitzitik, giza eskubideen «subjektu» dira.

02

Desgaitasuna medikuntzaren ikuspuntutik ulertzeko modua gainditzeko du –osasun eta asistentzia arloko alderdiak lehenesten ditu horrek–, desgaitasunaren inguruan gizarte-eredu bat ezartzeko, non desgaitasuna urritasunak dituzten pertsonen arteko elkarrekintzaren emaitza baita, gizartean erabat eta eraginkortasunez, besteen baldintza berdinetan, parte har dezatela ekiditen duten jarrera eta ingurunearen ondoriozko hesiak gainditzeko.

03

Desgaitasuna duten pertsonentzat beren autonomia eta independentzia izateak duen garrantzia airtortzen du, erabakiak hartzeko askatasuna barne.

04

Konbentzioak irizten dio desgaitasuna duten pertsonak aktiboki parte hartzeko aukera izan behar dutela politika eta programei buruzko erabakiak hartzeko prozesuetan, beraiei zuzenen eragiten dietenak barne direla.

Konbentzioaren helburua da desgaitasuna duten pertsona guztiek beren giza eskubideak eta askatasuna erabat eta berdintasunez izango dutela sustatzea, babestea eta ziurtatzea, baita haien duintasunarekiko errespetua bultzatzea ere. (1. artikulua).

HAUEK DIRA
KONBENTZIOAK
AITORTZEN
DITUEN
ESKUBIDE
NAGUSIAK:

Berdintasuna eta
diskriminaziorik eza.

Bizitzeko eskubidea.

Irisgarritasuna.

Justiziara iristea.

Legeak berdintasunez pertsona
gisa aintzatestea.

Libertad y seguridad de
la persona.

Torturaren eta bestelako tratu
edo zigor krudel, anker edo
umiliagarrien aurkako babesa.

Esplotazio, indarkeria
eta abusuen aurkako
babesa.

Pertsonaren askatasuna
eta segurtasuna.

Joan-etorriak egiteko
eta nazionalitaterako
askatasuna.

Osotasun pertsonalaren
babesa.

Modu independentean bizi eta komunitatearen kide izatearen eskubidea.

Mugikortasun pertsonala.

Hezkuntza.

Adierazpen- eta iritzi-askatasuna, eta informazioa eskuratzekoa.

Pribatutasunaren errespetua.

Osasuna.

Etxearen eta familiaren errespetua.

Gaikuntza eta birgaikuntza.

Bizi-maila egokia eta gizarte-babesa.

Lana eta enplegua.



Partaidetza bizitza politikoan eta publikoan.

Partaidetza bizitza kulturean, jolas jardueretan, aisian eta kirolean.




02

ZER DIRA OHAR OROKORRAK?



Batzordeak desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruz taxututako dokumentuak dira. Aipatu Batzordea Konbentzioaren aplikazioa gainbegiratzeko duen aditu independenteek osatutako organo bat da, Konbentziora aitortutako eskubideak argitzeko eta Estatuaren interpretaziorako gida modura baliagarri izan dadin.

Orain arte, Batzordeak Ohar
Orokor hauek egin ditu:



- 1. ohar orokorra (2014) - 12. artikulua: Legeak berdintasunez pertsona gisa aintzatestea
- 2. ohar orokorra (2014) - 9. artikulua: Irisgarritasuna
- 3. ohar orokorra (2016), desgaitasuna duten emakume eta neskatoei buruzkoa
- 4. ohar orokorra (2016), heziketa inklusiborako eskubideari buruzkoa
- 5. ohar orokorra (2017), modu independentean bizi eta komunitatearen kide izatearen eskubidea
- 6. ohar orokorra (2018), berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzkoa
- 7. ohar orokorra (2018), desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzeari buruzkoa, desgaitasuna duten mutiko eta neskatoen barne, horiek ordezkatzan dituzten erakundeen bidez, Konbentzioa aplikatuz eta jarraitu
- 8. ohar orokorra (2022), desgaitasuna duten pertsonen lana eta enplegua izateko daukaten eskubideari buruzkoa

03

DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEAK ETA NESKAK KONBENTZIOAN ETA 3. OHAR OROKORREAN



Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren 6. artikulua desgaitasuna duten emakumeen eta nesken berdintasun aukera eta diskriminaziorik eza aitortzen ditu, eta aukera-berdintasuna eta emaitza-berdintasuna sustatzen ditu.



1/

Estatu kideek aitortzen dute desgaitasuna duten emakume eta neskek diskriminazio mota ugari jasan behar dituztela, eta, horren aurrean, neurriak hartuko dituzte, giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiez erabat eta baldintza berberetan disfruta dezaten bermatzeko.

2/

Estatu kideek egoki diren neurri guztiak hartuko dituzte emakumearen garapen, aurrerapen eta sustapen osoa ziurtatzeko, Konbentzio honetan ezarritako giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen egikaritzea eta gozamenaren bermatzeko helburuarekin.

Era berean, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Komitearen 3. Ohar Orokorra lagungarria da Konbentzioak aitortutako eskubidea interpretatzeko, kontzeptuak argitzeko eta garatzeko, baita Estatu kideei 6. artikuluan aplikatzen eta ezartzen zaizkien betebeharrak betearazteko ere.

04

AURREKARI HISTORIKOAK



Historikoki, desgaitasuna duten emakume eta neskek, desgaitasuna duten gizon eta mutilek baino oztopo gehiago dituzte bizitzako eremu gehienetan, baita desgaitasunik ez duten emakumeek baino.

Oztopo horiek esparru ezberdinetan askotariko diskriminazio egoerak sortzen dituzte, bereziki hezkuntza-sarbidean, aukera ekonomikoetan, politikan parte hartzeko aukera berdintasunean edota norberaren bizitzaren kontrolean.

Era berean, genero-estereotipoek desgaitasuna duten emakumeek beren gaitasunak garatzeko, karrera profesionalei ekiteko eta beren bizitzari eta bizi-planei buruzko erabakiak hartzeko duten gaitasuna muga dezakete.

Praktika horiek indargabetzeko, desgaitasuna duten emakumeen eta nesken giza eskubideak sustatu eta babesteaz gain, gauzatzeko tresnak garatu behar dira, giza eskubide- eta garapen-ikuspegia oinarri hartuta.

05

OHAR OROKORREAN ERABILITAKO TERMINO GARRANTZITSUAK





EMAKUMEAREN AURKAKO DISKRIMINAZIOA: gizon eta emakumeen arteko berdintasun printzipioaren arabera, sexuan oinarritutako bereizketa, bazterketa edo murrizketa oro, baldin eta emakumearen, bere egoera zibila edozein dela ere, giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak (politikan, ekonomian, gizartean, kulturen edota bestelako maila batean) gutxitzea edo deuseztatzea badu xede edo ondorio.



DISKRIMINAZIO INTERSEKZIONALA: hainbat arrazoik aldi berean elkarreragiten duten egoera, banaezinak direnak. Diskriminazio-arrazoen artean, honako hauek daude: adina; desgaitasuna; jatorri etnikoa, indigena, nazionala edo soziala; genero-identitatea; iritzi politikoa edo beste mota batekoa; arraza; migratzailea, errefuxiatua edo asilo-eskatzaile izatea; erlijioa; sexua eta sexu-orientazioa.



DISKRIMINAZIO ANIZKOITZA: pertsona batek bi diskriminazio-arrazoi edo gehiago jasaten dituen egoera, diskriminazio-egoera konplexua bihurtu edo larriagotu egiten duena.



DESGAITASUN ARRAZOIAK TARTEKO SORTZEN DEN DISKRIMINAZIOA: desgaitasun arrazioak tarteko edozein bereizketa, bazterketa edo murrizketa, baldin eta giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak (politikan, ekonomian, gizartean, kulturen edota bestelako maila batean) aukera berdintasunean aitortzea, baliatzea edo egikaritzea oztopatzeko edo efekturik gabe uzteko helburua eta ondorioa badu.



ESTEREOTIPO KALTEGARRIA: talde edo gizarte batek modu aldaezinean onartzen duen irudia edo ideia, kaltegarria dena eta giza-eskubideen eta oinarrizko askatasunen urraketak eragiten dituena.




GENEROA: gizarte edo kultura batek maskulinitzat edo femeninitzat jotzen dituen ezaugarriak.



DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEAK: desgaitasuna duten emakumeak, neskak eta nerabeak.

06

KONBENTZIOAREN 6. ARTIKULUAREN ARAU-EDUKIA




Idea nagusi gisa, 3. Ohar Orokorrak ezartzen du **neurri positiboak hartu** behar direla **desgaitasuna duten emakumeak diskriminazio anizkoitzaren aurka babestuta egon daitezten**, eta, giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak, gainerakoen baldintza berberetan, balia ditzaten.

Horretarako, bere arau-edukian, Estatu kideek kontuan hartu behar dituzten gogoeta hauek gogorarazten dira:

- Desgaitasuna duten emakumeak askotariko diskriminazio egoerak jasaten dituztela onartzea.
- Giza eskubide eta oinarritzko askatasun guztiez erabat eta baldintza berdinetan disfrutatu ahal izango dutela ziurtatzeko neurriak hartzea.
- Desgaitasun arrazoiak tarteko diskriminazio oro debekatzea, eta babsa eskaintzea diskriminazioa beste arrazoi batzuentatik bada.
- Desgaitasuna duten emakumeei zentzuzko egokitzapenak ukatzea diskriminaziotzat har daiteke.
- Desabantaila-egoera larriagotzeko bizipenak eta esperientziak onartzea.
- Neurri espezifikoak hartzea kasu hauetan: datu banakatuen bilketa, kontsulta, formulazio-politika, diskriminazio-ezaren politiken gauzagarritasuna eta baliabide eraginkorren hornidura.

- Genero eta desgaitasun estereotipo kaltegarriak ezartzea diskriminazio egoerak sortzen ditu. Eta hori gertatzen da desgaitasuna duten emakumeentzako politikak, arauak eta zerbitzuak falta direlako.
- Diskriminazio-arrazoi bat baino gehiago oinarri hartuta egindako salaketak aintzat hartzeko erantzukizuna eta errekursoak zehazteko garaian, diskriminazio anizkoitza esplizituki aitortzen duten xedapen eta prozedura juridikoak onartzea,.
- Neurri guztiek bermatu behar dute desgaitasuna duen emakumea erabat garatu, aurreratu eta indartuko dela.
- Desgaitasuna duten emakumeen ahalduntze ekonomiko osoa ziurtatzea.
- Esparru hauetan neurri osagarriak hartzea: osasuna eta parte-hartzea politikan, kulturean eta kirolean.
- Desgaitasuna duten emakumeak sustatzeko eta bultzatzeko, hartzen diren neurriek garapenaren helburutik harago joan behar dute, eta desgaitasuna duten emakumeen egoera hobetzera bideratu behar dira.
- Desgaitasuna duten emakumeen ahalduntzea bermatzeko, beharrezkoa da emakume horien parte-hartzea sustatzea erabaki-gune publikoetan.

- Harreman-bide zuzena ezartzea desgaitasuna duten emakume eta neskekin, eta beharrezko neurriak hartzea haien iritziak, errepresaliarik gabe, kontuan hartzen direla bermatzeko.
- Desgaitasuna duten emakumeen erakundeetako ordezkarien parte-hartzea sustatzea berariazko kontsulta-organo eta -mekanismoez haratago.



07

DISKRIMINAZIO MOTAK



Aurreko ataletan aipatu den bezala, desgaitasuna duten emakumeek eta neskek askotan diskriminazio egoerak jasaten dituzte. Mota hauetakoak izan daitezke:

- a) **ZUZENKO DISKRIMINAZIOA:** desgaitasuna duten emakumeek, antzeko egoera batean, beste pertsonen baino tratu txarragoa jasotzen dutenean gertatzen da, debekatutako arrazoietako batekin lotutako arrazoiren batengatik.
- b) **ZEHARKAKO DISKRIMINAZIOA:** itxuraz neutroak diren baina desgaitasuna duten emakumeengan eragin negatibo neurrigabea duten lege, politika edo jardunbideei egiten zaie erreferentzia.
- c) **ELKARTZEAGATIK DISKRIMINAZIOA:** pertsonen aurkako diskriminazioa da, desgaitasuna duen pertsona batekin elkartzeagatik ematen dena.
- d) **ZENTZUZKO EGOKITZAPENAK UKATZEA:** diskriminazioa izango da beharrezko aldaketa edota egokitzapenak egiten ez direnean (neurritz kanpoko edo bidegabeko zamarik ezartzen ez dutenak), nahiz eta beharrezkoak izan desgaitasuna duten emakumeen, gainerakoen baldintza berberetan, giza eskubideak edo oinarrizko askatasunak bermatzeko.
- e) **DISKRIMINAZIO ESTRUKTURALA EDO SISTEMIKOA:** egoera hauetan ematen da: jokabide instituzional diskriminatzailea duten ezkutuko edo isilpeko patroiak, tradizio kultural diskriminatzaileak edota arau-sozial diskriminatzaileak.

08

ESTATUEK 6. ARTIKULUA GAUZATZEKO DITUZTEN **BETEBEHARRAK**



- 01 | Desgaitasuna duten emakumeen eskubideak errespetatzea, babestea eta gauzatzea, giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak bermatzeko eta haiekin disfrutatzeko.
- 02 | Desgaitasuna duten emakumeen eskubideak urratzen dituzten praktketan esku-hartzerik ez egitea, ez zuzenean ezta zeharka ere.
- 03 | Desgaitasuna duten emakumeen aurkako diskriminazioa eragiten duten legeak, erregelamenduak, ohiturak eta praktikak aldatzea edo indargabetzea.
- 04 | Desgaitasuna duten emakumeen eskubideak hirugarrenek urratzen ez dituztela ziurtatzea.
- 05 | Behar diren neurri guztiak hartzea pertsona, erakunde edo enpresa pribatu batek inor diskrimina ez dezan sexu edo desgaitasun arrazoiengatik.
- 06 | Parte-hartze eta eskubide mailan dauden desberdintasunak murrizteko ikuspegi bikoitza hartzea (desgaitasuna duten emakumeen eta nesken interesak eta eskubideak sistematikoki txertatzea ekintza-plan, estrategia eta politika nazional guztietan, eta desgaitasuna duten emakumeei berariaz zuzendutako eta ongi aztertutako neurri selektiboak hartzea).
- 07 | Diskriminazio anizkoitzaren aurre egitea.

07

ZEHARKOTASUNA BESTE ESKUBIDE BATZUEKIN



Desgaitasuna duten emakumeen eta nesken eskubideak zeharkakoak dira, eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioan ezarritako gainerako giza eskubideekin bat datoz:

• **Esplotazioaren, indarkeriaren eta abusuaren kontrako babesa (16. artikulua)**

Beste emakume batzuekin alderatuta, desgaitasuna duten emakumeek indarkeria, esplotazioa edota abusia jasateko arrisku handiagoa dute. Indarkeria pertsonen artekoa, erakundeen artekoa eta/edo egiturazkoa izan daiteke.

Estereotipo kaltegarriek arrisku hori areagotzen dute.

Tratu edo zigor krudel, anker edo laidogarriak eta giza eskubideen nazioarteko itunen hainbat urraketa indarkeria, esplotazio eta abusutzat har daitezke. Era berean, bortxaketa sexu-indarkeria da.

Desgaitasuna duten emakumeek ekonomikoki ustiatuak izan litezke.

Desgaitasuna duten neskatoen aurkako indarkeriak barne hartzen du genero-deskuidu espezifikoa, umiliazioa, ezkutaketa, abandonua eta abusia, baita sexu-abusia eta sexu-esplotazioa ere, pubertaroan areagotzen dena.

Desgaitasuna duten neskek ohitura eta balio soziokultural zein erlijiosoak argudiatuz justifikatzen diren praktika kaltegarriak jasateko arriskuan daude.

• **Osasuna eta sexu- eta ugalketa-eskubideak, etxearekiko eta familiarekiko errespetua barne (23. eta 25. artikulua)**

Desgaitasuna duten emakumeek hainbat desabantaila dituzte osasunarekin eta sexu- eta ugalketa-eskubideekin lotuta.

Informazio- eta komunikazio-sarbidea galarazi zaie desgaitasuna duten emakumeei, sexu-hezkuntza integrala barne.

Desgaitasunarekin eta generoarekin lotutako estereotipo bidegabeak finkatzea diskriminazio-modu bat da, eta ondorio bereziki larriak ditu osasunaz, sexu- eta ugalketa-eskubideaz gozatzeko garaian, eta, baita familia eratzeko eskubidean ere.

Osasun ekipamendu eta instalazioak, mamografia-aparatuak eta azterketa ginekologikoe-tarako ohatilak barne, ez dira irisgarriak.

Bortxazko kontrazepzioak eta esterilizazioak sexu-indarkeria eragin ohi dute.

● **Kontzientzia-hartzea (8. artikulua)**

Genero- eta desgaitasun-estereotipo bat finkatzea pertsona jakin bati uste estereotipatu bat egozte da, eta kaltegarria da giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak urratzen direnean.

● **Irisgarritasuna (9. artikulua)**

Genero-gaiei edota desgaitasunaren alderdiei arreta jarri ez izanak (ingurune fisikoa, garrailoan, informazioa eta komunikazioa, sistema eta teknologiak barne, jendeari irekitako edo erabilera publikoa duten instalazioak eta zerbitzuak) desgaitasuna duten emakumeei modu independentean bizitzea eta bizitzako alderdi guztietan gainerakoen baldintza berberetan parte hartzea eragozten die.

● **Arrisku-egoerak eta larrialdi humanitarioak (11. artikulua)**

Gatazka armatuetan, lurraldeetako okupazioetan, hondamendi naturaletan eta larrialdi humanitarioetan, desgaitasuna duten emakumeek sexu-indarkeria pairatzeko arrisku handiagoa dute, eta aukera gutxiago dituzte errehabilitazio- eta errehabilitazio-zerbitzuetara edo justiziara sarbidea izateko.

Saneamendu-instalazio faltak areagotu egiten du desgaitasuna duten emakumeen aurkako diskriminazioa, eta laguntza humanitarioa eskuratzeko hainbat oztopo gainditu behar dituzte.

● **Legearen aurrean aitortza bera pertsona gisa (12. artikulua)**

Desgaitasuna duten emakumeei, desgaitasuna duten gizonezkoei eta desgaitasunik ez duten emakumezkoei baino maizago, gaitasun juridikorako eskubidea ukatzen zaie.

● **Justiziarako sarbidea (13. artikulua)**

Desgaitasuna duten emakumeek justiziara iristeko oztopoei egin behar diete aurre; arrazoiak, besteak beste, hauek dira: estereotipo kaltegarriak, diskriminazioa, zentzuzko doikuntza eta doikuntza prozesal eza.

● **Pertsonaren askatasuna eta segurtasuna, eta torturaren eta beste tratu edo zigor krudel, anker edo umiliagarrien aurkako babesa (14. eta 15. artikulua)**

Askatasuna kentzeari buruzko urraketek neurritz kanpo eragiten diete desgaitasun intelektuala edo psikosoziala duten emakumeei eta erakunde-inguruneetan daudenei.

● **Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo umiliagarrien aurkako babesa eta osotasun pertsonala babestea (15, 17 artikulua)**

Desgaitasuna duten emakumeek aukera gehiago dute behartutako esku-hartzeak jasateko, oro har, emakumeek eta desgaitasuna duten gizonek baino; justifikazioak, gainera, desegokiak dira, sarritan, gaitasunik eza edota premia terapeutikoak alegatzen baitira.

• **Modu independentean bizitzeko eta komunitatearen parte izateko eskubidea (19. artikulua)**

Zenbait arau sozialek edota familia patriarkalaren baloreek desgaitasuna duten emakumeek bizilekua aukeratzeko duten eskubidea urratzen dute; izan ere, autonomia mugatu eta bizitza-sistema jakin baten arabera bizitzera behartzen baitituzte.

• **Hezkuntza (24. artikulua)**

Genero- eta desgaitasun-estereotipo kaltegarriak jarrera, politika eta praktika diskriminazioak sustatzeko konbinatzen dira. Egoera horrek analfabetismo-tasa handiagoak, eskola-porrota, eguneroko asistentzia-tasa irregularrak, absentismoa eta ikasketak erabat uztea eragiten du.

• **Osasuna eta errehabilitazioa (25. eta 26. artikulua)**

Desgaitasuna duten emakumeek oztopoak dituzte osasun- eta errehabilitazio-zerbitzuetara eta errehabilitazio fisiko eta psikologikoko zerbitzuetara iristeko, genero-indarkeriako kasuetarako aholkularitza barne, irisgarriak, inklusiboak edo generoa eta adina kontuan hartzen ez dituztenak.

• **Lana eta enplegua (27. artikulua)**

Desgaitasuna duten emakumeek oztopo bereziak dituzte lantokian: berdintasun printzipioaren aurkakoak, sexu-jazarpena eta ordainsari-desberdintasuna.

• **Babes soziala (28. artikulua)**

Desgaitasuna duten emakumeek zailtasun ugari dituzte etxebizitza egokia lortzeko, instituzionalizatuak izateko aukera gehiago dute eta zailtasunak dituzte gizarte-babeseko eta pobrezia murrizteko programetan parte-hartzeko.

• **Parte-hartzea politikan eta bizitza publikoan (29. artikulua)**

Botere-desoreka eta askotariko diskriminazioaren ondorioz, desgaitasuna duten emakumeek aukera gutxiago izan dute emakume, neska edo desgaitasuna duen pertsonen premiak ordezkariak erakundeak sortzeko edo haien bazkide egiteko.



Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten
Pertsonen Federazio Koordinatzailea
Federación Coordinadora de Personas
con Discapacidad Física de Gipuzkoa

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Zainketa eta
Gizarte Politiketako
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Cuidados y
Políticas Sociales

